



# **Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa UEMAko udalerriak eta Tolosaldea, 2017**

**Emaizen txostena**

Andoain, 2017ko azaroa.



|                                                                                         |    |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. Sarrera.....                                                                         | 2  |
| 2. Metodologia .....                                                                    | 3  |
| 2.1 Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketaren metodologia .....           | 3  |
| 2.2 Gune mugatuetako hizkuntzen erabileraren neurketaren metodologia berezitasunak..... | 8  |
| 2.3 ñUEMA-Tolosaldea, 2017òneurketaren fitxa teknikoa .....                             | 10 |
| 2.4 Ohar metodologikoak .....                                                           | 12 |
| 2.5 Laginaren osaera .....                                                              | 16 |
| 3. Erabilera orokorra UEMako udalerrietan eta Tolosaldean.....                          | 22 |
| 3.1 Hamar solaskideetatik seik euskarazko elkarrizketaren batean parte hartu du .....   | 22 |
| 3.2 Herrietako biztanleria eta euskara gaitasunarekin gurutzaketak .....                | 23 |
| 4. Lurralde konparaketak.....                                                           | 30 |
| 4.1 Euskal Herria eta euskararen ezagutza altueneko eremua.....                         | 30 |
| 5. Hitzunen ezaugarrien arabera hizkuntza-erabilera .....                               | 31 |
| 5.1 Adinaren arabera hizkuntza-erabilera .....                                          | 31 |
| 5.2 Adin-talde eta sexuaren arabera hizkuntza-erabilera.....                            | 36 |
| 6. Euskararen erabilera eta haurren presentzia .....                                    | 38 |
| 6.1 Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera .....                            | 38 |
| 7. Datu nagusien irakurketa (laburpena).....                                            | 43 |
| 8. Eranskinak .....                                                                     | 44 |
| 8.1 Tolosaldea .....                                                                    | 44 |
| 8.2 Herrietako hizkuntza-erabilera orokorra.....                                        | 49 |
| 8.3 Adinaren arabera herrietako hizkuntzen kale-erabilera .....                         | 53 |
| 8.4 Sexuaren arabera herrietako hizkuntzen kale-erabilera .....                         | 71 |
| 8.5 Haurren presentziaren arabera herrietako hizkuntzen kale-erabilera.....             | 82 |



## 1. Sarrera

---

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen da iritzia ematera. Baina subjektibotasuna saihesteko, gero eta garrantzitsuagoa da egoeraren berri emango duten datuak eskuartean izatea, balorazioetan objektibotasuna lortzeko. Hala, datu horien bila ekin nahian, herriko euskararen presentzia nolakoa den adierazteko, funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika arloko eskarmentuak erakutsi du erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuen eta fidagarriena.

Hizkuntza erabiltzea gizakion jardun arrunta edo ohikoa da. Nonahi, noiznahi, baliatzen dugu hizkuntza. Hizkuntza bat edo bestea erabiltzea ez da jarduera arautua edota patroijakinei obeditzen diena, ordea. Horrenbestez, hizkuntzen erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, eta metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz, sortu eta garatu dugu kaleko hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia. Horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitatera hurbiltzeko, eta, beraz, funtsezkoa bihurtzen da herri-mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat, kale neurketen emaitzak beharrezkoak baitira eragin esparruen lehentasunak ezartzeko edota datu xeheagoak eskuratzeko aldera.

UEMA osatzen duten hainbat udal dira beren kasa eta Soziolinguistika Klusterraren laguntzaz urtetan herriko kale-neurketak burutzen dituztenak. Mankomunitateak, ordea, bere baitan dauden udalerriz guztietako euskararen kaleko erabilera zenbatekoa den jakin nahi luke. Horretarako, Soziolinguistika Klusterrarekin batera, biztanle gutxiko herrietan kale-neurketako ohiko metodologia aplikatzeko moldaketak egin eta UEMA osatzen duten herri gehienetako gaur egungo erabilera datuak eskuratu ahal izan ditugu.

Era berean, Galtzaundi Euskara Elkartarekin lankidetzan, Tolosaldeko UEMAKoak ez diren beste hamahiru herritan ere burutu da Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Hala, Tolosaldeko udalerriz euskaldunen informazio osatuagoa eskuratu ahal izan da.

Txosten honetan, beraz, ezagutza maila altueneko eremuan kokatzen diren herrietako hizkuntzen kale-erabilera datuak jasotzen dira: Tolosaldeko 29 herritakoak eta UEMArekin barruan dauden beste 47 herritakoak. Eremu soziolinguistikoa honetako errealitatea gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen da.



## 2. Metodologia

---

### 2.1 Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketaren metodologia

UEMAko zein Tolosaldeko herrietan egindako kale-neurketaren metodologia Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketan garaturikoan oinarritua dago. 2.2. atalean azalduko diren fitxa teknikoko moldaketak soilik egin behar izan dira metodologia herri horietako berezitasunetara egokitzeko.

Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik sei alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta 2016an. Ikerketaren zazpigarren edizioa burutu berri du Soziolinguistika Klusterrak, kalean hizketan 450.000 hiztun inguru behatzea lortu delarik. Dagoeneko hogeita hamar bat urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dugu eta erreparorik gabe esan dezakegu, gaur egun, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu direla datu horiek. Horregatik, UEMA eta Tolosaldeko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren emaitzak ulertzeko, Euskal Herriko Kale-Neurketan eskuratu diren azken emaitzak kontuan izatea garrantzitsua da. Bi ikerketen alderaketa eginez Euskal Herriko errealitatea gertuagotik ezagutu dezakegu.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika **behaketa zuzena** da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Izan ere, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela litzateke datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.



## Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: **ibilbidea eta neurraldiak**, hain zuzen ere. Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusitzat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharrezko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtzea izanik. Nolabait ere, hautatutako egun eta orduetan herritar guztien hizkuntza-jarduera estatistikoki neurtzeko aukera bildu nahi da neurraldien eta ibilbideen diseinuarekin.

## Elkarriketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea **taldeko elkarriketa-hizkuntza** da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarriketak dira zenbatzen direnak. Dena den, bakarrizketa gisa jasotzen ditugu elkarriketa-mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarriketen kasua, non hitun bakarraren informazioa jasoz biltzen den elkarriketa-datua.

Bestalde, normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten da, eta beraz, taldeko elkarriketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen da kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen da, gehien erabiltzen duena alegia.

## Fitxak

Neurketetan erabilera-datuak biltzeko fitxa bakarra erabiltzen da. Material horren bidez, hitzunen ezaugarriak jasotzen dira, aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat ateratzea ahalbidetuz. Hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aldagai hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera eskaintzen digu fitxak: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Neurraldi guztietan erabiltzen da fitxa bera; ikus ondoren fitxa horren irudiak:

**HIZKUNTZA  
ERABILERAREN  
KALE NEURKETA**  
**SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA**  
T: 943 592 556  
kaleneurketak@soziolinguistika.eus

HERRIA: \_\_\_\_\_  
IBILBIDEA: \_\_\_\_\_  
EGUNA: \_\_\_\_\_ ORDUA: \_\_\_\_\_  
NEURTZAILEAK: \_\_\_\_\_

|    | EUSKARA | GAZTELERA | FRANTSESA | BESTERIK | HAURRAK<br>(2-14 urte) | GAZTEAK<br>(15-24 urte) | HELDUAK<br>(24-64 urte) | ADINEKOAK<br>(65-... urte) | Haurrak<br>hitz egiten |    |
|----|---------|-----------|-----------|----------|------------------------|-------------------------|-------------------------|----------------------------|------------------------|----|
|    |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            | BAI                    | EZ |
| 01 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 02 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 03 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 04 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 05 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 06 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 07 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 08 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 09 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 10 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 11 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 12 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 13 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 14 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 15 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 16 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 17 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 18 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 19 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 20 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |

Emakumezkoa
 Gizonezkoa

OHARRAK: \_\_\_\_\_

|    | EUSKARA | GAZTELERA | FRANTSESA | BESTERIK | HAURRAK<br>(2-14 urte) | GAZTEAK<br>(15-24 urte) | HELDUAK<br>(24-64 urte) | ADINEKOAK<br>(65-... urte) | Haurrak<br>hitz egiten |    |
|----|---------|-----------|-----------|----------|------------------------|-------------------------|-------------------------|----------------------------|------------------------|----|
|    |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            | BAI                    | EZ |
| 21 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 22 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 23 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 24 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 25 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 26 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 27 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 28 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 29 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 30 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 31 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 32 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 33 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 34 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 35 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 36 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 37 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 38 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 39 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 40 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 41 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |
| 42 |         |           |           |          |                        |                         |                         |                            |                        |    |

Emakumezkoa
 Gizonezkoa



### Herriko biztanleen erabilera baino gehiago, herriko kaleetakoa

Azaltzen ari garen metodologia honek badu muga bat: ezin da ziurtatu kalean hizketan ari diren hiztun guztiak herrikoak direnik. Horregatik, ez da egokia neurtutakoa herriko biztanleen hizkuntza-erabilera dela esatea, izan ere, neurtutakoa herriko kaleetan jaso den erabilera da. Dena den, herrikoen erabilerara hurbiltzeko asmoz, kasu batzuetan nabarmen kanpotarrak (turistak) direnen elkarriketak modu berezitan jaso ditugu.

Erabilera-datuen neurketek bere zailtasuna ere badutela gogoan izan behar da, hizkuntza-erabilera aldakorra den heinean. Beraz, kontuan izan behar da datu adierazgarriak jasotzen badira ere, euskararen kale-erabilera hori neurri txiki batean aldagarria dela. Horren arrazoia ulergarria da: kalean noiz norekin topo egingo dugun aurreikusi ezin daitekeenez, euren jarduera neurtzen diren hiztunak ez dira beti berdinak eta horrek herriko euskararen kale-erabileraren datua aldarazi dezake. Muga hori gainditzeko da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Hala eta guztiz ere, metodologia honek emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzea bermatzen du.

### Adierazgarritasuna

Datuen adierazgarritasuna bermatzeko garrantzitsua da laginaren tamainari begiratzea, behatutako elkarriketa-kopuruari alegia. Are gehiago, aurrez aipaturiko hiru aldagaiek (sexua, adina eta haurren presentzia) euskararen kale-erabileran duten eragina aztertzeke, gutxieneko elkarriketa-kopuru bat bete behar da adierazgarritasun hori lortzeko.

Zentzu horretan, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan (adin-taldeak sexuaren arabera bereizterakoan, adibidez), lagina txikiagoa bihurtzen da, eta datuek adierazgarritasuna galtzen dute beharrezkoa den gutxieneko elkarriketa-kopurua ez bada jaso. Hau da, aldagai guztiak aztertzeke lagin handia behar izaten da, izan ere, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu lagin txikiagoa gelditzen baita. Horrela, adibideari erreferentzia eginez, gerta daiteke behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina biltzea, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez. Herrietako datuak aztertzerakoan, garrantzitsua da ohar hau kontuan izatea.



## Oharrak

Atal honekin amaituz, hona hemen datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

### HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

**Zer neurtu behar da?**

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itxiki beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurketa hona-  
tik kanpo geratuko dira.

**Neurtzaileak**

Neurketa **bikotea** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina ego-  
kiagoa da neurtzaileak binaka aritzea.  
Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendeari entzun eta besteari zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimula-  
tzen da, eta oso inportantea da saia-  
tzea inor ez dadin konturatu neurke-  
ta egiten ari garela. Gainerakoan,  
jendearen jokabide naturalak alda  
daitezke; isilduz, hizkuntzaz aldatuz,  
haserretuz...

**Neurketa, ez inkesta**

Kalean goazela jendeari ez zaio galdetu  
behar normalean zein hizkuntzatan hitz  
egiten duen edo une horretan zein hiz-  
kuntzatan ari den mintzatzen. **Ez galde-  
tu, entzun** egin behar dugu eta entzu-  
ten dugun hizkuntza jaso, jendeari ezer  
esan gabe. Gure helburua kaleko hiz-  
kuntza-errealitatea bere horretan jaso-  
tzea da, ahalik eta modurik objektibo-  
nean. Kalean doazenez ez dute jakin  
behar neurketa egiten ari garenik.

**Ibilbidea**

Bikote bakoitzak **ibilbide jakin bat**  
izango du (koadernoaren atzealdean  
jaso da ibilbidearen mapa, kaleen ize-  
nak, neurketa egunak eta orduak). Ibilbi-  
dea herriko kalerik jendetsuenek osa-  
tuko dute, normalean erdiguneak  
(erdigunea zentzu zabalean ulertuta):  
erosketa-kaleak, poteo kaleak, haur jo-  
las-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab.  
Ibilbideak hasi eta bukatu leku berean  
egin beharko du, bikoteak behar be-  
zainbat aldiz egin ahal izateko ibilbide  
hori, neurraldi bakoitzak irauten dituen  
bi ordu horietan.

Bikote bakoitzak bere ibilbidean paseatzen  
ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka  
eserlekuren batean eserita neurketa egi-  
teko, eta batzuetan gainera, disimulatze-  
ko beharrezkoa ere izango da. Baina ese-  
rita denbora gehiegi ematea ere ez da  
komeni. Izan ere, helburua neurketa  
ibilbide guztian zehar egitea da.

### HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

**Datuak nola jaso**

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarriketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

1. **Hizkuntza:** "Euskara", "gaztelera", "frantsesa" eta "beste"rik (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "beste"rik zutabea adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
2. **Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
3. **Generoa:** Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
4. Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarriketa entzuten dugun urtean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzunt aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarriketa**):
  1. Euskaraz laukian "X" markatu.
  2. Haurren zutabea, emakumezkoen laukian "1" adierazi eta gizonezkoen laukian beste "1" adierazi.
  3. "Haurrak hitz egiten" zutabea "bai" laukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelera hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarriketa**):
  1. Gaztelera laukian "X" markatu.
  2. Haurren zutabea emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabea gizonezkoen laukian "1"; eta helduen zutabea emakumezkoen laukian "1" eta gizonezkoen laukian beste "1" markatu.
  3. Haurrak hitz egiten zutabea "ez" laukian "X" seinaltatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztelera ari dira (**03 elkarriketa**):
  1. Gaztelera laukian "X" markatu.
  2. Gazteen zutabea emakumezkoen laukian "2" eta gizonezkoen laukian "3" adierazi.
  3. Haurrak hitz egiten zutabea "ez" laukian "X" markatu.

### HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

HERRIA: \_\_\_\_\_  
IBILBIDEA: \_\_\_\_\_  
EGUNA: **Urriak 08** ORDUA: **18:00-20:00**  
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA  
T. 943 592 556  
kaleneurketak@soziolingvistika.eus

NEURTZAILEAK: \_\_\_\_\_

|    | EUSKARA | GAZTELEA | FRANTSESA | BESTERIK | HAURRAK<br>(2-14 urte) | GAZTEAK<br>(15-24 urte) | HELDUAK<br>(24-64 urte) | ADINEKOAK<br>(65-... urte) | Haurrak<br>hitz egiten |    |
|----|---------|----------|-----------|----------|------------------------|-------------------------|-------------------------|----------------------------|------------------------|----|
|    |         |          |           |          |                        |                         |                         |                            | BAI                    | EZ |
| 01 | X       |          |           |          | /                      | /                       |                         |                            |                        | X  |
| 02 | X       | X        |           |          | /                      | /                       | /                       | /                          |                        | X  |
| 03 | X       |          |           |          |                        | 2                       | 3                       |                            |                        | X  |
| 04 | X       |          |           |          |                        |                         |                         | 2                          |                        | X  |
| 05 | X       |          |           |          |                        |                         |                         | 2                          |                        | X  |
| 06 |         |          |           | X        |                        |                         | /                       | /                          |                        | X  |
| 07 |         | X        |           |          | 2                      |                         | /                       |                            |                        | X  |
| 08 | X       | X        |           |          | /                      |                         | /                       |                            |                        | X  |
| 09 | X       |          |           |          |                        |                         |                         | /                          | /                      | X  |
| 10 | X       |          |           |          |                        |                         | 2                       |                            |                        | X  |
| 11 | X       |          |           |          |                        | 4                       |                         |                            |                        | X  |
| 12 | X       |          |           |          | /                      |                         | /                       |                            |                        | X  |
| 13 | X       | X        |           |          |                        |                         | 3                       |                            |                        | X  |
| 14 | X       |          |           |          | 2                      |                         |                         | /                          |                        | X  |
| 15 | X       |          |           |          |                        |                         | 2                       | /                          |                        | X  |
| 16 | X       | X        |           |          | /                      | /                       |                         |                            |                        | X  |
| 17 | X       |          |           |          |                        | 2                       | /                       |                            |                        | X  |
| 18 | X       |          |           |          | /                      |                         | /                       | /                          |                        | X  |
| 19 | X       |          |           |          | 3                      |                         | /                       |                            |                        | X  |
| 20 | X       | X        |           |          | /                      | /                       |                         |                            |                        | X  |

Emakumezkoa    Gizonezkoa





## 2.2 Gune mugatuetao hizkuntzen erabileraren neurketaren metodologia berezitasunak

Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketan erabiltzen den metodologia oinarrian egon bada ere, herri batzuetako datu bilketa egiterakoan moldaketa batzuk egin behar izan dira. Izan ere, neurtu nahi diren herri batzuk hiztun gutxi dituzten eremuak dira eta ondorioz, beren berezitasunak medio, hizkuntzen erabilera neurtzerakoan kale-neurketaren metodologia ezaugarriak egokitu egin behar izaten dira.

ñGune mugatuò izenez deitzen diegu eremu hauei eta **hiztun gutxi dituzten espazio irekiak** barnebiltzen ditugu bertan: herri txikiak, ikastolako jolaslekuak, ekitaldiren baté Aipaturiko eremu hauek azaleratzen diguten zailtasunik handiena, eremu hauen txikitasuna kontuan izanik, datuak biltzerakoan diskrezioa lortzea izaten da. Hain zuzen ere, kale-neurketaren oinarrizko baldintza hiztunek behatuak izaten ari direla ez jakitea da informazio horrek sor dezakeen ohiko hizkuntza-portaeren aldaketak saihestu nahian. Horregatik, ondorengo lerroetan azaldutako egokitzapen batzuk egin dira 3.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan.

### Mugikorreko aplikazioa

Aurrez esan bezala, gune mugatueta ikerketa egiten ari garela ezkutatzeko zailtasunak izaten ditugu hiztunak behatuak direla nabarmentzea errazagoa baita. Horregatik, diskrezio handiagoa lortu nahian eta ohiko hizkuntza-portaerak jasotzeko, datuak paperezko fitxetan jaso baino mugikorreko aplikazio baten bitartez biltzen dira. Modu honetan, neurtzailearen lana ez da agerian gelditzen eta mugikorrarekin zerbaitetan dabilela soilik ikusiko dute behatuek.



## **Laguntzailea**

Gune mugatuetako zailtasunak gainditzeko hartzen den beste neurri bat hiztun gutxiko eremu horretako pertsona batek (herritarra, irakaslea, ikaslea,é ) neurtzailearekin batera neurketa egitea da. Hain zuzen ere, neurtzailea laguntzailearen ezagun gisa aurkez daiteke behatuen aurrean eta ez bertakoak behatzera datorren pertsona arrotz moduan. Horrela, diskrezioan irabazten dugu.

UEMA eta Tolosaldeko hizkuntza-erabileraren kale-neurketari dagokionez, neurtzaile sarea UEMAK kudeatu du eta herri gehienetan bertakoez osatutako bikoteek behatu dute beren herriko hizkuntza-erabilera. Diskrezioari begira, neurri hau hartzea oso aberasgarria izan da ikerketarentzat, batez ere herri txikietan kanpoko norbaitzuek bertako kaleetan paseatuz herritarren elkarrizketei erreparatzea bortitza izan liteke eta.

## **Gune mugatuetako neurketa bereziek eskaintzen dituzten abantailak**

Era berean, laguntzaileari edo neurtzaileak bertakoak izateari esker, gune mugatuetako neurketek ikerketari onura gehiago eskaintzen dizkie. Izan ere, bertako laguntzaileek behatuak ezagutzen dituztenez gero, kasu askotan hiztunari buruzko informazio zehatzagoa eskaintzen digute. Adibidez, ikasleak bizi diren udalerrriaren datuak (ikastetxeen kasuetan), adin zehatzagoa, edota hizkuntza-gaitasun bezalako datuak jaso daitezke. Ondorioz, neurketaren analisisian informazio osatuagoa aztertzen da adin-talde txikiagoak osatuz edota hizkuntza-gaitasunarekin gurutzaketak eginez.

Dena den, kasu honetan, ez dira adin-talde txikiagoak osatu, ezta hizkuntza-gaitasunarekin gurutzaketak egin ere, 3.000 biztanle baino gehiago dituzten herrien datuekin alderagarriak izan zitezen bertan eskuratutakoak.



## 2.3 ñUEMA-Tolosaldea, 2017ò neurketaren fitxa teknikoa

### Herriak

Neurketa hau burutzeko, UEMA osatzen duten udalerri guztiak<sup>1</sup> behatu nahi izan dira, eta baita UEMAKoak ez diren Tolosaldeko beste 13 herri ere. Guztira 95 herritako datuak bildu nahi ziren, beraz.

95 herri horietatik, ordea, badira hainbat Soziolinguistika Klusterrarekin kale-neurketa burutua zutenak, bertako udalen eskariz. Hala, 2015 eta 2016 urteetan kale-neurketa burutu zuten 24 herritako datuak aintzat hartu dira egungo azterketa egiteko. Era berean, Munitibar-en ere beren kasa egin zuten kale-neurketa 2016an eta ondorioz, ez da datu-bilketarik egin behar izan<sup>2</sup>.

Atal honetan bildu dugu 2017. urtean 70 herritako neurketak burutzeko diseinu teknikoa, kale-neurketa Tolosaldeko 29 herrietan eta UEMAKo beste 41 herritan burutzeko diseinua alegia.

### Prozedurak

Aurreko puntuan azaldutako metodologiako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Hizkuntzen Erabileraren UEMAKo eta Tolosaldeko Kale-Neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko; baina bai aurrez aipatutako ñabardura azpimarratu:

- 3.000 biztanletik gorako herrietan ohiko kale-neurketa metodologia aplikatu da,
- eta 3.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan, berriz, ñgune mugatuetakoòmetodologia berezitu hori aplikatu da.

---

<sup>1</sup> UEMAn orotara 83 herri dira, Ezkio eta Itsaso bereizirik kontatuta. Baina Itsasok oraindik UEMAn sartu ala ez erabaki ez duenez, guztira UEMAKo 82 herri behatu nahi izan dira. Ez dira kontuan hartu UEMAn sartu berri diren Gabiria eta Orozko.

<sup>2</sup> Munitibar-eko datuak ez dira azterketa orokorrerako kontuan hartu emaitzen konparagarritasuna tarteko.



## Ibilbideak

Arestian aurreratu moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, *Hizkuntzen Erabileraren 2017ko UEMAKo eta Tolosaldeko Kale-Neurketa* egiteko herri bakoitzean ibilbide bana antolatu da, nagusiki.

## Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2017ko maiatza eta uztaila bitartean egin dugu. Datu adierazgarriak eskuratzea izan dugu helburu. Herri bakoitzeko akats-tarteari 5 puntuko muga ezarri genion. Hau da, herri bakoitzean akats-tartea 5 baino txikiagoa izateko adinako elkarriketa kopurua behatu dugu datuak adierazgarriak izateko.

Behatu beharreko 71 herri horien ezaugarriak oso anitzak ziren ordea, eta ezarritako helburu hori lortzea ezberdina da biztanle gehiago edo gutxiago dituen herri batean. Horregatik, hiru diseinu ezberdin zehaztu genituen herriko biztanle kopuruaren arabera aplikatzeko:

- 500 biztanle baino gutxiagoko herrietan, 2 astez egunero burutu dira neurketak. Neurtzaileek herriko gunek eta unerik jendetsuenetan aurkitutako solaskideen portaera jasotzen zuten eta elkarriketa guztiak bildu zituztela ikustean neurraldia amaitutzat ematen zuten.
- 500-3.000 biztanle arteko herrietan, berriz, 2 astez 10 orduko datu-bilketa burutu da. Astelehen, asteazken, ostegun eta larunbat arratsaldetan ordubeteko behaketa eginez eta igande goizetan beste ordubeteko behaketa burutuz.
- 3.000 biztanle baino gehiagoko herrietan, 3 astez 18 orduko datu-bilketa egin da, asteazken arratsaldetan 18:00-20:00 bitarteko eta larunbatetan 11:00-13:00 bitarteko eta 18:00-20:00 bitarteko ordutegia errespetatuz.



### Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

**Unibertsoa:** UEMA eta Tolosaldea osatzen duten 76 herrietako kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

**Lagina:** behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun **54.715 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **159.746 solaskidek**<sup>3</sup> osatu dute lagina<sup>4</sup>.

**Akats-tartearen kalkulua** (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): Akats-tartea bertakoen datuekin kalkulatu dugu.  $\pm 0,42\%$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat,  $95,0\%$ ko konfiantza mailan<sup>5</sup>.

## 2.4 Ohar metodologikoak

Hurrengo orrialdeetan agertuko diren datuak interpretatzerako orduan garrantzitsua da ondorengo ohar hauek kontuan izatea. Izan ere, hasiera batean UEMA eta Tolosaldeko herri guztietan behaketa lanak egitea aurreikusi bazen ere, arrazoi ezberdinak tarteko UEMA eta Tolosaldeko hizkuntza-erabilera orokorrak ezin izan dira udalerri guztiekin kalkulatu. Azterketa orokor hori 76 herritako hizkuntza-erabilera datuekin burutu da, ondorengo taulan jasotzen den moduan (Tolosaldeko 29 herriak eta UEMako beste 47 herri):

<sup>3</sup> Datu honek ez du esan nahi ia 160.000 pertsona ezberdinen hizkuntza-erabilera behatu denik. Gerta liteke solaskideren batzuk behin baino gehiagotan behatu izana. Neurraldi batean solaskide-talde bera modu berean hitz egiten behatu bada, behin bakarrik jasotzen da datua; baina beste neurraldiren batean solaskide-talde bera modu berean hitz egiten entzunez gero, beste talde bat bailitza datu berri gisa jasotzen dugu.

<sup>4</sup> EUSTAT eta NEI, Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera 2011n UEMA eta Tolosaldeko 76 herri horietan 234.100 herritar bizi ziren.

<sup>5</sup> Akats-tartea kalkulatzeko, 233.333ko hitzun kopurua erabili dugu. Izan ere, Nafarroako 5.000 biztanletik beherakoen gaitasun daturik ez daukagu 2011. urtean. 2001. urtekoak dira herri horietan ditugun gaitasun daturik berrienak. Horregatik, kasu hauetan 2001eko hitzun kopuruaren datuak hartu dira aintzat, batz besteko gaitasun datuarekin ( $74,7\%$ ) bat egin zezaten.

1. Taula: ñUEMA eta TOLOSALDEKO HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETAò IKERKETAREN BAITAN SARTU DIREN HERRIEN ZERRENDA.

| Herrialdea | Eskualdea        | Udalerrria     | Neurketa urtea | Herrialdea | Eskualdea               | Udalerrria      | Neurketa urtea |
|------------|------------------|----------------|----------------|------------|-------------------------|-----------------|----------------|
| Araba      | Gorbeia inguruak | Aramaio        | 2016           | Gipuzkoa   | Tolosaldea <sup>6</sup> | Abaltzisketa*   | 2017           |
|            |                  | Dima           | 2017           |            |                         | Aduna           | 2017           |
| Bizkaia    | Arratia          | Igorre         | 2016           |            |                         | Albiztur*       | 2017           |
|            |                  | Otxandio       | 2017           |            |                         | Alegia          | 2017           |
|            | Bilbo Handia     | Larrabetzu     | 2017           |            |                         | Alkiza*         | 2017           |
|            |                  | Ea             | 2017           |            |                         | Altzo           | 2017           |
|            | Gernika-Bermeo   | Bermeo         | 2016           |            |                         | Amezketza       | 2017           |
|            |                  | Muxika         | 2017           |            |                         | Anoeta          | 2016           |
|            | Lea-Artibai      | Amoroto        | 2017           |            |                         | Asteasu*        | 2015           |
|            |                  | Aulesti        | 2017           |            |                         | Baliarrain      | 2017           |
|            |                  | Berriatua      | 2017           |            |                         | Belauntza*      | 2017           |
|            |                  | Gizaburuaga    | 2017           |            |                         | Berastegi       | 2017           |
|            |                  | Lekeitio       | 2017           |            |                         | Berrobi*        | 2017           |
|            |                  | Markina-Xemein | 2017           |            |                         | Bidania-Goiatz* | 2017           |
|            |                  | Ondarroa       | 2016           |            |                         | Elduain*        | 2017           |

<sup>6</sup> (\*) ikurra duten herriak ez daude UEMAre barruan.

|                 |                  |                 |              |                 |      |                 |      |
|-----------------|------------------|-----------------|--------------|-----------------|------|-----------------|------|
| Nafarroa Garaia | Ipar-Mendebaldea | Araitz          | 2017         |                 |      | Gaztelu         | 2017 |
|                 |                  | Arantza         | 2016         |                 |      | Hernalde*       | 2017 |
|                 |                  | Arbizu          | 2016         |                 |      | Ibarra*         | 2017 |
|                 |                  | Areso           | 2017         |                 |      | Ikaztegieta     | 2017 |
|                 |                  | Baztan          | 2015         |                 |      | Irura           | 2016 |
|                 |                  | Bera            | 2016         |                 |      | Larraul*        | 2017 |
|                 |                  | Etxalar         | 2016         |                 |      | Leaburu-Txarama | 2017 |
|                 |                  | Etxarri-Aranatz | 2016         |                 |      | Legorreta       | 2017 |
|                 |                  | Goizueta        | 2017         |                 |      | Lizartza        | 2017 |
|                 |                  | Igantzi         | 2016         |                 |      | Orendain        | 2017 |
|                 |                  | Leitza          | 2017         |                 |      | Orexa           | 2017 |
|                 |                  | Gipuzkoa        | Donostialdea |                 |      | Oiartzun        | 2016 |
| Usurbil         | 2016             |                 |              | Villabona-Amasa | 2016 |                 |      |
| Goierrri        | Ataun            |                 | 2017         | Zizurkil        | 2017 |                 |      |
|                 | Ezkio            |                 | 2017         | Aizarnazabal    | 2017 |                 |      |
|                 | Itsasondo        |                 | 2017         | Azpeitia        | 2016 |                 |      |
|                 | Segura           |                 | 2015         | Errezil         | 2017 |                 |      |
|                 | Zaldibia         |                 | 2017         | Orio            | 2017 |                 |      |
|                 |                  |                 | Urola Kosta  |                 |      |                 |      |





|            |          |      |             |         |      |
|------------|----------|------|-------------|---------|------|
| Debagoiena | Zerain   | 2017 | Debabarrena | Zarautz | 2016 |
|            | Antzuola | 2016 |             | Zestoa  | 2016 |
|            | Bergara  | 2017 |             | Zumaia  | 2016 |
|            | Elgeta   | 2017 |             | Deba    | 2017 |
|            | Oñati    | 2016 |             | Mutriku | 2017 |

*Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak, UEMA eta Tolosaldeko udalerriak 2015, 2016 eta 2017.*

Tolosaldeko 29 herriak neurtu ahal izan baditugu ere, ez dugu lortu UEMA osatzen duten herri guztietan kale-neurketa burutzea. UEMAren baitan kokatzen diren Tolosaldeko herriak albo batera utziz, UEMAko beste 41 herritan kale-neurketa burutu nahi zen 2017. urtean. Zailtasun ezberdinak tarteko, 13 herritan ezin izan kale-erabilera daturik behatu.

Alde batetik, neurtzaileak topatzeko zailtasunak medio, ezin izan dira aurreikusitako epealdiak behar bezala bete. Ondorioz, azterketa orokorrean sartu ez badira ere, kale-neurketa 2017ko irailean eta urrian burutu duten eta emaitza adierazgarriak lortu dituzten 4 herriren informazioa badaukagu: Arama, Busturia, Mañaria, eta Mendaro<sup>7</sup>.

Beste alde batetik, esan beharra dago datu-bilketa ez dela erraza izan; izan ere, herri bakoitzaren diseinuak beren berezitasunak zituen eta jarraipen zuzena egitea zaildu du horrek. Gainera, emaitza adierazgarriak lortzeko akats-tartea 5 puntutara jaisteko helburua ezarria genuen<sup>8</sup> eta beste gorabehera batzuk sortu dizkigu muga horrek:

<sup>7</sup> Eranskinetan jaso ditugu herri hauetako erabilera datuak, nahiz eta azterketa orokorrean ez diren sartu.

<sup>8</sup> Herri bakoitzeko datuen akats-tartea euskara indizearekin kalkulatu da. UEMAk darabilen bezala, ia euskaldunak ere aintzat hartu ditugu herrietako akats-tartearen kalkulurako.

- 
- Emaizta adierazgarriak eskuratzeko 5 puntuko akats-tarte horretara jaistea lortu ez duten herriak gelditu zaizkigu (Mallabia, Ziortza-Bolibar, Gatika eta Getaria)<sup>9</sup>,
  - edo era berean, badira beste 6 herri 5eko mugatik igaro baina alde handirik ez zutenez azterketa orokorrerako kontuan hartu ditugunak (Muxika, Zerain, Berriatua, Belauntza, Itsasondo eta Gizaburuaga)<sup>10</sup>.

Azkenik, bestelako arrazoiak tarteko, ez da lortu kale-neurketa burutzea ondorengo 10 herri hauetan: Altzaga, Beizama, Izurtza, Larraun, Basaburua, Atxondo, Ajangiz, Artea, Gaintza eta Areatza.

## 2.5 Laginaren osaera

Ikerketaren emaitzak aurkezten hasi aurretik, garrantzitsua da unibertsoaren ordezkagarritasunaren inguruko gogoeta egitea. Bi zatitan bereizi dugu. Alde batetik, ikerketan sarturiko herriek zer ikuspegi eskaintzen duten azpimarratu nahi dugu gerturatuko garen errealitatea zein den jakin dezagun. Beste alde batetik, herrietako biztanleriaren ezaugarriekin alderatuko dugu gure lagina osatu duten solaskideen profila.

### Herrien ordezkagarritasuna


Gure ikerketarako kontuan hartu ditugun herriek zein euskara gaitasun dute? Zenbatekoa da beren biztanle kopurua? Zein herrialdetakoak dira? Hiru aldagai hauen arabera sailkatu ditugu gure ikerketako herriak, izan ere, emaitzen analisia ere hiru aldagai hauen gurutzaketak eginez osatuko dugu.

Lehenengo grafikoan ikus dezakegunez, ikerketan sartu diren herri gehienak Gipuzkoakoak, % 65,0 - % 79,9 bitarteko euskara gaitasuna dutenak, eta 1.000 ÷ 3.000 biztanle bitartekoak dira. Biztanleriaren arabera sailkapenean ikus dezakegu kategorien arteko oreka handiena (nabarmen pisu txikiena 10.000 biztanletik gorako herriek hartu badute ere). Beste muturrean, herriak beren herrialdearen arabera sailkatzerakoan lortzen da desorekarik handiena (Gipuzkoako herriak dira nabarmen gehienak).

<sup>9</sup> Kasu hauetan, emaitzak ez dira azterketa orokorrerako erabili, ezta eranskinetan txertatu ere.

<sup>10</sup> Gehienez 5,4 puntuko akatsa hartu dugu aintzat; azterketa orokorrerako erabili dira datuok eta eranskinetan aurki daitezke herri hauetako emaitzak.

1. Grafikoa: IKERKETAREN BAITAN SARTU DIREN HERRIAK, ALDAGAIEN ARABERA SAILKATUTA. UEMA eta Tolosaldea, 2015-2016-2017ko Herrietako Kale-Neurketak



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak, UEMA eta Tolosaldeako udalerriak 2015, 2016 eta 2017.

2. Taula: IKERKETAREN BAITAN SARTU DIREN HERRIAK, ALDAGAIEN ARABERA SAILKATUTA. UEMA eta Tolosaldea, 2015-2016-2017ko Herrietako Kale-Neurketak

| Ikerketan erabiliko diren aldagaiak | Kategoriak              | Herri kop. | Herriak                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|-------------------------------------|-------------------------|------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Euskara gaitasunaren arabera        | % 65,0 – 79,9 euskaldun | 31         | Anoeta, Antzuola, Baztan, Belauntza, Bera, Bergara, Bermeo, Berrobi, Deba, Ea, Elgeta, Etxarri Aranatz, Ibarra, Igorre, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larrabetzu, Legorreta, Markina-Xemein, Oiartzun, Oñati, Ondarroa, Orio, Otxandio, Tolosa, Usurbil, Villabona-Amasa, Zarautz, Zizurkil, Zumaia. |
|                                     | % 80,0 – 89,9 euskaldun | 28         | Aduna, Aizarnazabal, Alegia, Alkiza, Altzo, Aramaio, Arbizu, Asteasu, Ataun, Azpeitia, Berastegi, Berriatua, Bidania-Goiatz, Dima, Errezil, Ezkio, Hernialde, Igantzi, Larraul, Leaburu, Lekeitio, Lizartza, Mutriku, Muxika, Orendain, Segura, Zaldibia, Zestoa.                                     |
|                                     | > % 90,0 euskaldun      | 17         | Abaltzisketa, Albiztur, Amezketa, Amoroto, Araitz, Arantza, Areso, Aulesti, Baliarrain, Elduain, Etxalar, Gaztelu, Gizaburuaga, Goizueta, Leitza, Oresa, Zerain.                                                                                                                                      |
